



NARRASEAN





FSSSSSSH!!!

Zerbait nabaritu du burutik behera gure laguntxo likatsuak,
euria ariko balu moduan.

—Zer usain arraroa daukan gaur euriak... —apur bat zorabiatu ere egin da— A zer kiratsa, demontre!



Tripaz gora erori da, ziplo! Luze-luze etzanda geratu da konortarik gabe.

Begiak zabaldu ditu pixkanaka... Baina zeharo nahastuta eta galduta esnatu da.

—Non nago? Zer gertatu zait? Hemendik atera beharra daukat!



TOPATU LUPAREKIN



Liburu honetako animalia guztiak txikiak dira, eta, batzuk, oso txikiak. Horrelakoak hobeto ikusteko lupa oso erabilgarria da. Proba egin dezakezu, komuneko-paper tutu batekin. Begiratu biribiletik... Ez al dira hobeto ikusten gauzak?

Bada, orain bista zorroztu duzula, ea topatzen dituzun liburuan gure lagun-txoek ezkutatu dituzten sekretu guztiak.

Barraskiloa eta barea

Astiro mugitzen dira biak ala biak, baina ez berdin-berdin, narrasean dabiltzan arren. Barraskiloez marra etena uzten dute atzetik eta, bareek, aldiz, lerro zuzen bakarra. Pista horri jarraituz ipuinaren hasieran jakin ahal izango genuen barraskiloa zela gure lagun ezkutua! Begiratu ongi berriz marrazkiei luparekin.

Eta kalean? Nolako arrastoak topa ditzakezu? Atera kalera, ea zer ikus dezakezun.



IKUSI ARRASTOAK 13. ORRIALDEAN

Armiarma

Txokorik txikienetan eta ezkutuenetan agertzen dira armiarmak...

Eta gure liburuan ere, berritsuenaz gain, beste hainbat ere hor zehar ibili dira pasean.

Eta zure etxean, akaso leiho ertzen batean topa dezakezu baten bat?




IKUSI ARMIARMAK 15, 23 ETA 25. ORRIALDEETAN

SUGANDILA

Luzexkak, muturluzeak
eta behatzluzeak dira.



Eguzkiaren argitan
dir-dir egiten duten
ezkataz estalitako
gorputza dute.



Gerturatuz gero
ordea, bixkor-bixkor
ibiltzen dira.




Beroa maite dutenez,
neguan lozorroan
egoten dira, eta
udaberriko epeltasuna
somatzean hasten dira
berriz beren zuloetatik
ateratzen.



KUKURUTXA

14 hankako animalia grisaxkak dira.
Kanpoaldean oskol gogorra dute,
babesteko eta gorputzari eusteko.



Hain zuzen, oskola
zatitxotan antolatuta
dute, eta horri esker
kiribildu daitezke,
gogorrak izan arren.



Ez zaie argia gehiegi
gustatzen, horregatik
normalean enbor edo
egur zatien azpialden
aurkitzen dira, ilunpetan
goxo eta humel.

Izan ere lurreko hosto
erdi ustelak eta desegiten
hasitako egurrak
jaten dituzte.

